

DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 301. zenbakia. 2021eko ekaina



**Badator kirola,
badator kultura,
badator aisia**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hertz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga,
Eneko López,
Nahia Ruiz,
Jon Saez,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Lukene Trujillano, Diario
Vasco eta Xabier Unanua.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Juan Carlos Martín eta
Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Fran Alonso, Antxitxiketan,
Bizkaiko Pintxo txapelketa,
Eider Galdos, Estibalitz
González, Indabak, Esther
Jimeno, Ainhoa Lasuen,
Valentin Mugarza,
Modesto Saenz de Zaitegi,
Lukene Trujillano,
Ermuko Udala,
Xabier Unanua,
Luis Vázquez
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: ume-kanta

O benuno

(Entzuteko: www.alboka.es)

- O benuno
- O benuno
- Oie ie ie o benuno
- Oie ie ie o benuno
- Oie benuno oie
- Oie benuno oie
- Uele uele balun banba laue
- Uele uele balun banba laue
- Sikotili bli
- Bli
- Sikotili bla
- Bla
- Sikoti balene balun banba laue
- Sikoti balene balun banba laue



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA.....4 Luis Vázquez (Tarragona)	KIROLZALE.....17 Aimar Galdos txirindularia
ELKARRIZKETA5-7 Esther Jimeno, hezitzailea	IRITZIA.....18 <i>Zer dela-eta medikatzen dugu dena?</i> (Juan Carlos Martín)
MALLABIAN ZER?8-9 "Bideak" dokumentala	BOTEPRONTOAN19 Fran Alonso
ELKARRIZKETA10-11 Indabak musika taldea	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN12-14 Erdikokaleko zeharbide berria	ZORION-AGURRAK21 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?15 Esperanza Loixate parterria	UZTAILEKO AGENDA.....22
ZAHARRAK BERRI.....16 Modesto Saenz de Zaitegi	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Luis Vázquez

Kataluniako kostaldeko herri txiki batean bizi da egun, baina Ermutik joan zenetik Madrilen eta Cadizen ere egona da Luis Vázquez ermuarra. Musikaren, produkzioaren, antzerkigintzaren eta publizitatearen esparruan egin du lan.

- Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?

31 urte daramatzat Ermutik kanpo. 1990. urtean Madrilera joan nintzen, eta arrazoia ez zen eskusiboki pertsonala izan. Garai hartan A santo de que taldean gitarra jotzen nuen, eta hura saldu behar izan nuen dirua lortzeko: bizitzan gehien damutzen naizen gauza da! Hasierako hilabeteak gogorrak izan ziren.

- Zer egiten zenuen Madrilen?

Ordura arte musikari eta aktore karrerak uztartzen nituen. Madrilen, ordea, ekoizle moduan hasi nintzen lanean, eta deskubritu nuen izugarri gustatzen zitzaidala. Jende asko ezagutu nuen, tartean aktore ospetsuak eta musikariak. Baina 1998an *klak* egin zidan buruak. Ikuskizunetarako dekoratuak egiten nituen, eta bat-batean ez neukan oso argi zer egin nahi nuen. Orduan urte sabatikoa hartu nuen, eta Cadizera joan nintzen bizitzera. Bertan nengoenean ikuskizunetako zuzendari teknikoa zen lagun batek deitu zidan, behar ninduela esanez. Proposamena onartu nuen, eta hura probatzera joan.

- Eta, nora joan zinen?

Tarragonara. Leku aproposa da bizitzeko, lasaitasunagatik, erosotasunagatik eta klimatagatik. Izan ere, bertan erosi genuen etxea, berdin zitzaidalako non bizi, baina hondartzatik gertu bizi nahi

nuen. Hamar urtez Port Aventuran egon nintzen lanean, espektakuluetako ikuskatzaile tekniko gisa, pandemia etorri arte. Aldi berean, Madrilera joan-etorriak egiten nituen publizitatea egiteko. Horrez gain, Warner Parkean (Madril) ere egin nuen lan bi urtez (pertsonaien kontuan, Gabonak, Halloween, izuaren pasarte...). Ondoren, Saloun *escape rooma* muntatu genuen bikoteak eta biok, eta lantzean behin ere bideoklipak egiten ditugu, Reuseko zine eskolan. COVID-19aren kontuarekin guztiz aldatu da dena.

- Gauza ezberdin asko egiten dituzu, zelan definitzen duzu zeure burua?

Buscavidas bat naiz, etengabeko ikaslea. Arte zuzendaria naiz, film laburrak egin ditut, publizitatea lantzen dut, alde teknikoan dihardut, antolaketa lanean... Film labur bateko soinu-banda egin berri dut lehen aldiz, eta Indiako zine festibal batean saritua izan da duela gutxi. Reuseko eskola alboan edukitzea lagungarria izan zait.

-Eta zure karrera musikala?

Ermuan nengoenean *Lo del perro* taldea geneukan, eta Deban A santo de que, jotzen jarraitzen dutenak. Azken proiektua Sr. Tomoko izan zen, pop estiloan. Madrilen abesten nuen, eta "Luiggi Tomoko" zen nire *alter egoa*. Oraindik ere pop abestiak konposatzen jarraitzen dut.



Luis Vázquez Maspujolseko udaletxearen aurrean.

- Nolakoa da zure egunerokotasuna orain?

Landa eremuan bizi naiz, oiloak ditut eta orain berotegi bat muntatzen ari gara. Normalean ibilaldira bat egiten dut hemen ingurutik, eta ortuan ematen dut eguna: landa-bizitza. Baina beti ere emailari begira, eta *escape roomera* joatea tokatzen bazait, dutxatu, eder jarri eta herrira jaisten naiz.

- Zein hizkuntzatan egiten da bizi zaren herrian? Zelan moldatzen zara?

Ez daukat arazorik. Katalanez hitz egiten dut, eta egunerokotasunean dirudiena baino errazagoa da, elkarriketa asko gaztelaniaz eta katalanez nahasten ditudelako. Eta esan beharra daukat Ermuan egon naizetan konturatu naizela *katalanadak* sartzen ditudala noizean behin.

- Zer botatzen duzu faltan Ermutik?

Bizi izan naizen leku guztietan beti bota izan dut faltan afal ostean edo lanetik

irtetea tabernara zerbait hartzera joatea. Ermuan beti egin da bizitza kalean, nahiz eta uste dudana orain gauzak aldatu direla.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatuko zara?

Iaz, konfinatu baino aste bete aurretik han egon nintzen. Aurten udan joateko asmoa dut, baina nire kuadrilla diasporan dago, mundu osoan zehar sakabanatuta.

-Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez dago jakiterik: eduki ditudan bandak ere oraindik ez ditut desegin ofizialki, eta ez dut aterik ixten. Dena den, hemen bizitza egina daukat dagoeneko, eta ez naiz pisu baten bizi, finka duen etxe baten baizik. Hala ere, ez diot inoiz Ermura joateri utzi, baina aldea igarri dut azkenaldian: nire anaia Gorka, lehen, Luisen anaia zen; orain, ni naiz Gorkaren anaia.

Libe Solozabal



Esther Jimeno, hezkuntza bereziko hezitzailea:

“Maskarek kalte handia egin dute komunikazioaren esparruan”

Hogeita hamar urte pasatxo daramatza Esther Jimeno ermuarrak umeen irakaskuntzan lanean, eta urte kopuru bertsua eman du keinu-hizkuntzan murgilduta. Bi arloak berariaz uztartzen ditu, baina lehenengoak poztasuna sorrarazten dion bitartean, bigarrenak tristura eragin dio azkenaldian. Izan ere, oso sentsibiltate berezia du gorren munduarekiko, eta pandemia hasi zenetik haiekin kezkatuta dago: berez traba komunikatiboz beteta dagoen egunerokotasunean, maskara akabua izan da, eta gorrek hilabeteak daramatzate isolatuta. Hurrengo lerrootan, Estherrek ahotan hartu ditu isolamendu hori eta gorren ohiko zailtasunak, zein musukoek hezkuntzan izan duten eragina eta umeei keinu-hizkuntza erakustearen garrantzia, besteak beste.

- Nola joan da ikasturtea maskarak tartean izanda?

Oztopo handia izan dira, eta hasieran batez ere oso gogorra izan zen: umee maskara begiratzen zuten, eta kentzeko eskatu. Ikasturte bukaerarako ohituta zeuden, baina ni kezkatuta ibili naiz, eta zentroko logopedarekin hitz egin nuen, bera ere oso kezkatuta zegoelako. Nola erakutsiko zion ume bati nola jarri behar den mingaina hizki bat ahoskatzeko maskara jantzita badu? Ezinezkoa da! Orduan saiatu ginen beste maskara batzuk erabiltzen, gardenak, baina homologatu barik daude, eta Eusko Jaurlaritzak FFP2ak erabiltzeko agindua eman zuen. Zailtasunak zailtasun, irakasleek lan bikaina egin dute aurtun.

- Zein da zure lana zehatz mehatz Anaitasuna Ikastolan?

Ume autistekin, Downen sindromea dutenekin eta X hauskorren sindromea duten umeekin egiten dut lan, besteak beste. Haiekin komunikatzeko, hizkuntzaz aparte, keinuak, antzerkiak, marrazkiak, piktogramak eta horrelako erremintak erabiltzen ditut. Aurtun, gainera, keinu-hizkuntza landu dugu 5 urteko gelako umeekin, haien tuto-



rea izan den Nerea Olanok ere proiektua begi onez ikusi duelako. Umeei pilo bat gustatu zaie zeinu-hizkuntzan trebatzea. Zelako gustura ibili diren! Liluratuta! Ume autistei asko laguntzen die keinu-hizkuntzak, baina uste dut gainontzekoei ere mesede egiten diela.

- Betidanik erakutsi diezu umeei keinu-hizkuntza, edo azken urtean ekin diozu?

Betidanik, eta ahal dudan leku guztietan hura zabalitzen saiatzen naiz. Lehen autobusean etortzen nintzen eskolara, eta autobusean ere aprobetxatzen nuen keinu-hizkuntza irakasteko. Horrez gain, sena-

rrari ere irakatsi diot, haren alabei, ilobei, lagunei...

- Uste duzu garrantzitsua dela umeek zeinu-hizkuntza txikitatik ikastea?

Bai, zalantza barik. Bigarren hizkuntza bati buruz hitz egiterakoan, ingelesa aipatzen dugu beti, baina nik uste dut hirugarren hizkuntza batek ere lekua izan dezakeela, eta zeinu-hizkuntza izan daitekeela.

- Keinu-hizkuntza beste hizkuntzekin parekatzen duzu?

Bai, zergatik ez?

- Zer dela-eta erabaki zenuen hura ikastea?

Nire lanerako onuragarria izan litekeela iruditu zitzaidan, eta lagun gorra nituen, animatu egin nintzen. Oso espresiboa naiz, oso irekia, eta pentsatzen dut hizkuntza hau oso ondo egokitzen zaidala. Gainera hizkuntzak orokorrean gustatzen zaizkit, eta txinatarrez eta arabiarrez ere badakizkit hitz batzuk.

- Prozesu luzea izan zen?

Hiru urte eman nituen Bizkaiko Gorren Elkartearen, Bilbon, berau ikasten. Baina gero asko praktikatu behar da gorrekin, agian beste urte pare bat. Gaur egun, baliabide ugari daude Interneten ere.

- Zergatik erakarri zintuen gai honek?

Mundu polita delako, oso berezia.

- Nahiko ohikoa bihurtu da hainbat esparrutan keinu-hizkuntzako interpreteak egotea. Gorakada igarri duzu azken urteotan?

Esango nuke gero eta esparru gehiagotan ikusten direla keinu-hizkuntzako interpreteak: abesti batzuen bideoetan (*Ni euri tanta baintz*, esaterako), kongresuan, senatuan, albistegietan... Ez nuke esango modan jarri denik, baizik eta konturatu direla honen beharra dagoela. Nik eskolan botatzen dut faltan.

- Pentsatu duzu inoiz interpretea izatea?

“Zeinu-hizkuntza izan daiteke eskoletan erakusten den hirugarren hizkuntza”



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Bai, mila bider, bi mila bider! Baina umeekin pilo bat gozaten dut, eta hasi nintzanean bezain gogotsu nago. Asko gustatzen zait umeekin egotea, eta haiek pozik badaude, ni ere bai. Agian ni ere umea naizelako!

- Lagun gorrak dituzula aipatu duzu...

Bai, eta azkenaldian besoak gurutzatuta ikusten ditut kalean, besteekin komunikatu ezinda. Ezin dute elkarrizketetan parte hartu, eta oso tristea iruditzen zait. Maskarek kalte handia egin diote komunikazioari.

- Zein zailtasun zituzten gorrek pandemia baino lehen?

Hainbat lekutara joateko laguntza behar zuten, esaterako. Nik lagundu izan ditut medikuarenera edo notariatzara, besteak beste, ez zirelako ondo moldatzen. Pentsatu orain maskarekin nola ibiliko diren! Oso zaila da, eta batzuetan idatziz azaldu behar dute zer nahi duten. Horren jakitun naiz, eta laguntzeko prest nago beti. Aurretik zegoen notarioak adibidez, telefona eskatu zidan, inoiz interprete bat behar izanez gero ni joateko. Eta ni po-

zik! Uste dut gorrekin enpatia izan behar dugula: itsuarena egiteko begiak ixten ditugun bezala, kasu honetan ariketa polita da belarriak tapatzea, eta inolako soinu barik egotea une batez. Gogorra da txoriak ez entzutea, edo maite duzun pertsonaren ahotsa ez entzutea... Badaude gauza gogorra goak, eta agian ez diogu gortasunari garrantzirik ematen, baina hor dago.

- Maskararen derrigortasunak nola eragin die gorrei?

Erabat isolatuta geratu dira. Keinu-hizkuntzan gorrek ezpainak irakurtzen dituzte, eta haiei laguntzeko keinuak egiten ditugu aurpegiarekin eta eskuekin. Orain, maskarekin eta bakarrik begiak bistan izanda, gauzak konplikatu egin dira. Besteekin komunikatzea ez da batere erraza.

- "Gorra" eta "gor-mutu" hitzak sinonimotzat hartzen dira sarritan. Gor guztiek dituzte hitz egiteko zailtasunak?

Ez horixe! Gor-mutuak esan ohi dugu, baina gehienak gorrak dira bakarrik. Kontua da jaiotzetik gorrak direnek oso ahots berezia dutela, ez dutelako sekula

Aurten, ikastolako 5 urteko ume guztiak trebatu dira keinu-hizkuntzan.



entzun nola ahoskatzen den, eta zoritxarrez jendeak askotan ez die ulertzen. Ni haien ezpainak irakurtzen ohitu naiz, eta praktikatzeko batzuetan telebistari soinuak kendu, eta ulertzen saiatzen naiz. Seguru ez dugula inoiz pentsatu, baina bibotedunei ulertzea zaila da, goiko ezpainak ez zaielako oso ondo ikusten. Eta bibote eta bizar handiak modan daude bada! Beste pertsona batzuk ia ez dituzte ezpainak mugitzen hitz egiteko, eta horiei ere ezinezkoa da ulertzea.

- Teknologiarri dagokionez, aurrerapenak egin dira gorren munduan azken urteotan?

Urte pilo bat daramatzat hezkuntzan, baina ez zait sekula tokatu ume gor batekin egon behar izatea. Hala ere, badakit gaur egun koleako inplanteak egiten direla, eta oso ondo funtzionatzen dutela.

- Zer daki jende arruntak gorren errealitateari buruz?

Oso gutxi, edo ezer ez. "Ez diot ulertzen" esaten dute, eta badoaz. Saiatu zaitetz, besteok saiatzen garen bezala!

- Zer egin daiteke haiekin komunikazioa errazteko?

Ondo ahoskatu, haiek ulertu ahal izateko. Ez dugu oihukatu behar edo exageratu behar, ez direlako leloak, gorrak baizik. Eta keinu-hizkuntza ikasi genezake, oinarrikoena gutxienez. Uste dut eskoletan zerbait landu beharko litzatekeela.

Dorleta Vidal



Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Bideak dokumentala eskainiko da Mallabian


Bideak dokumentalaren egileak diren Aritz Ganboa artzaina eta Xabier Unanua zuzendaria Mallabian izango dira ekainaren 24an. Egun horretan lana ikusteko eta ondoren izango den solasaldian parte hartzeko aukera izango da Kontzejuzarrean.

Hitz gutxitan, Aritz Ganboa arruazuarrak burututako erronka jasotzen du *Bideak* dokumentalak. Baina ikus-entzunezko honetan kirol-proba baten testigantza baino askoz gehiago jasotzen da. Izan ere, eragile, helburu eta aldarrikapen ugari biltzen dituen lana da.

Ganboak urteak zeramatzan ideia honi bueltak ematen, eta 2018an proiektua aurrera eramatea erabaki zuen. Xabier Unanurekin harremanetan jarri, eta komunikazio plana eta aurrekontuak zehazten hasi ziren. Bi urte geroago, 2020ko urriaren 26tik 27ra Ganboak bere aitaren herritik (Arruazu, Sakana) amaren herrira (Isaba, Erronkari) dauden 170 kilometroak korritu zituen, sorbaldan berak egindako gazta bat zeramala. Bere bi jatorriak lotzeko aitzakiarekin, landa-eremu bizi baten aldarriak eta hausnarketak jasotzen ditu dokumental honek, eta 3 zatitan banatzen da: “Alde batetik, kirol-erronka bat dago, eta hari lotutako historia. Bestal-

de, ibilbidean zehar agertzen diren pertsona ezberdinek egiten dituzten hausnarketak eta haien bizipenak, eta azkenik dokumentala bera sor-kuntza tresna bezala”.

Proiektu honen irudi eta kontakizunen bitartez, bere arbasoei omenaldia egin nahi die Aritzek, eta bere historia pertsonalean oinarritutako proiektua den arren, bere kutsua duena, herri baten historiaren errealitatearen parte izan nahi du. “Horrek kritika soziala eta politikoa eragiten du —esan du artzain honek—, gure egungo hiri-kulturak ez duelako aintzakitatzat hartzen eta ez dituelako balioan jartzen gure oinarrizko beharrak asetzeko beharrezkoa dugula landa-eremu bizi bat. Eta landa horretan baserriarrak, nekazariak eta laborariak behar ditugula elikagai horiek sortzeko, modu iraunkorrean”. Aldarri horretan zehar lerro ezberdinak agertuko dira dokumentalean: naturaren eta naturaren baliabideen kudeaketa-eredua, energia iturri berriak, herri txikien fun-



Iker Karrera (ezkerrean) eta Aritz Ganboa (eskuman).

tzioa, emakumearen ezinbesteko papera gizartean eta haren bazterketa eta gutxiespena, inklusioa eta kultura eta nortasun bat duen herria edo landa-eremua, non erdigunean euskaraz dagoen ezinbesteko elementu gisa.

Prestaketa fisikoa

Entrenamenduei denbora asko eskaini die Ganboak, horrelako erronka batek izugarriko kalteak eragin ditzakeelako. “70 kilometro baino gehiagoko probarik egin gabe nengoen, eta ez nekien nire gaitasunek hori burutzeramango ninduten”, onartu du. Horiek horrela, kirol-prestatzaile bat, fisioterapeuta bat eta nutrizionista bat izan zituen ondoan, eta Iker Karrera mendi-korrikalariaren laguntza ere jaso zuen.

Dena den, laguntzaile ugari izan zituen: *crowdfunding*

kanpainen parte hartu zutenak, elkarrizketatuak, kameラルariak... “Eta senideei, lagunei eta lankideei eskerrak eman behar dizkiegu ere, denbora asko lapurtu diegulako”.

Behin dena grabatuta, bigarren faseari ekin zioten 2021ean: areto ezberdinetan proiektua aurkezteari, alegia. “Fase honetan errekonozimendua eta txalo zaparradak jasotzen ari gara, eta egindako lana merezi izan duela erakusten digu. Oso pozgarria da”, dio Aritzek.

Ekitaldia “Ekaina Kulturala” egitarauaren barruan burutuko da. Bi saio egingo dira, 17:30ean eta 19:30ean, eta parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena (943 17 14 61, 943 17 66 91, udala@mallabia.eus edo kulturetxea@mallabia.eus).

Dorleta Vidal

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

“EKAINA KULTURALA” PROGRAMAREN JARDUERAK AMAITZEAR DAUDE



110 ekitaldi kultural baino gehiago antolatu dituzte Mallabiko Udalak eta herriko hainbat elkartek ekainerako, eta jada azken txanpan daude. Ekainaren 23an

Tramankulu jolas kooperatiboak egingo dira parkean (17:00etan), 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Eta egun berean 20:30ean, San Juan sua egingo da Ansoagako bidegorrian. Hurrengo egunean, ekainak 24, *Bideak* dokumentala ikusteko eta haren gainean solasaldia egiteko aukera egongo da Kontzejuzarrean (informazio gehiago ondoko orrian). Azkenik, ekainaren 25ean *Erik eta Win* ikuskizuna eskainiko da frontoian, zeinek antzerkia, bertsoa, musika eta umorea uztartzen dituen. 19:00etan hasiko da, eta 18:30ean zabalduko dituzte frontoiko atea, pilaketak saihesteko.

BERROGEITA BOST UMEK PARTE HARTUKO DUTE UDALEKUETAN

4 eta 12 urte bitarteko 45 umek eman dute izena Mallabiko Udalekuetan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako kolonia hauek ekainaren 28an hasiko dira, eta uztailearen 21ean bukatu, eta astelehenerik ostiralera burutuko dira, 10:00ak eta 13:00ak bitartean. Irteerak daudenean, 16:30ean bueltatuko dira. Mallabiko Udalak antolatutako udaleku hauek Satxibu aisialdi taldeak kudeatzen ditu.


ION ETA IORITZ GISASOLA LEHENGUSUAK EUSKAL PENTATLOIAREN FINALEAN ARITU DIRA

Maiatzaren azken asteburuan burutu zen binakako II. Euskal Pentatloiko Txapelketako finalean aritzeko sailkapen fasea, eta Ioritz Gisasola (Zelai IV) eta Ion Gisasola (Zelai V) mallabitarrak lehen postuan sailkatu ziren, “ezustean” haien esanetan. Ekainaren 19an finala burutu zen Tolosako zezen-plazan, eta bost bikoteren aurka lehiatu behar izan zuten (*Drogeteniturri* inprentara bidali orduko proba burutu barik zegoen oraindik). Pentatloiko txapelduna den Xabier Zalduarekin entrenatu du Mallabiko bikoteak, hala nola Kiroleneko irakaslea den Iker Lópezekin.

Dorleta Vidal

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Indabak musika taldea:

"Oraindik gure bidea bilatzen ari gara"

Ermuko 5 lagun musika talde bat sortzera animatu ziren. Mikelek, Martzelek, Peiok, Alexek eta Josuk Indabak taldea sortu zuten gustukoen dutena egin ahal izateko. Izan ere, musika talde honek berezitasun bat du: taldekideek beraien rola aldatu dituzte, eta bakoitzak instrumentu desberdin bana jotzen du. Musikazaleak primeran pasatzen dute elkarrekin eta kontzertu pare bat egin dituzte jada.

- Nola sortu zen indabak taldea?

Peio: Martzelek baxua jo nahi zuen eta, nik gitarra jotzen nuen, berarekin jotzea erabaki nuen, bere sotoa entsegu leku gisa aprobeztatu.

Mikel: Bai, Martzelek ez zuen instrumenturik jotzen eta baxua eskatu zidan. Alex eta Josu musikoak dira: Alex kontserbatorioan dabil eta Josuk bateria jotzen du. Parranda baten ginela Josuk taldean sartzea erabaki zuen, baina abeslari gisa. Orduan Alex bateria jotzera animatu zen, honek ere bere rola aldatuz. Egoera ikusita, nik ere taldean sartzea erabaki nuen, baxua jotzeko. Eta mix arraro hortaz Indabak sortu zen.

-Zergatik Indabak?

Mi.: Hasieran Pikoletok ginen, baina ez genuen oso gustuko. Beraz, Martzelek Indabak izena proposatu zuen, horrelako izen inozoekin obsesioa baitu. Hasieran txantxa moduan hasi zena, errealitate bilakatu zen.

-Zein da zuen helburua talde moduan?

Nora arte heldu nahi duzue?

P.: Ez dugu helburu finkorik: deitzen diguten tokietara joan eta gure artean ondo pasatu nahi dugu.

Mi.: Bai, kuadrilla-talde bat gara. Azkenean bakoitzak bere zereginak ditu musikarekin, eta talde hau ondo pasatzeko sortu genuen. Asko disfrutatzen dugu jotzen eta kontzertuak ematen. Ondo egongo litzateke gure abestiek in errepertorio propioa sortzea, diskoren bat ateratzea... Eta hortik aurrera ikusi behar!

P.: Gainera garai hauetan zailtasun gehiago daude...

- Zein esango zenukete dela zuen genero musikala?

P.: Momentuz 3 abesti ditugu, euren artean oso desberdinak.

A.: Nik uste dut punk-rockera hurbiltzen saiatzen garela.

Mi.: Lehenengo entsegura ideiarik gabe joan ginen. Akorde batzuk jo eta atera zena gustuko izan genuen, baina orain beste musika mota batera mugitu gara. Askotan



horretaz hitz egin arren, denetarik jotzen amaitzen dugu. Gustukoen duguna Oi! musika estiloa da, baina sortzen hasten garenean denetarik ateratzen da.

A.: Beste alde batetik, metal generora hurbiltzen den abestia dugu.

Mi.: Ez da heltzen metal generora, baina bide horretatik doa. Gure gustukoa izan arren, ez nuke esango gure estiloa denik. Gure azkenengo abestia Durangaldeko taldeen arteko disko baten dugu sartuta, eta punk-klasikoan atera zen. Oraindik gure bidea bilatzen ari gara.

- Zelan da lagunekin talde bat izatea?

P.: Kristoren barreak botatzen ditugu! Konfiantza aldetik asko igartzen da, elkarri

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK
PROBLEMU 3-943170563
ERMUA

ZK

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

errieta egiteko momentuan edo zeozer mozteko erraztasun gehiago daude, eta hori abantaila handia da.

A.: Giro ona dugu. Iritziak esaterako orduan, entzuteko prest gaude beti.

Mi.: Musikalki oso ezberdinak gara eta iritzi ezberdinak ditugu. Bakoitzak bere musika entzuten du eta bakoitzak bere estiloa du. Batzuetan konfiantza gehiegi dugu eta hori txarra dela esango nuke.

P.: Seriotasun aldetik igartzten da lagun talde bat garena. **- Espero duzue diskoren bat ateratzea?**

A.: Bai, bidean gaude. Orain dela 9 hilabete parte hartu genuen Durangaldeko zenbait talderekin osatutako disko batean. Denbora justuarekin ibili ginen: gure artean grabatu eta bidali genuen.

Mi.: Josuk eta Alexek lan handia izan zuten abestien produktzioan.

P.: Gure kuadrillakoek diskoa grabatzera animatu gintuzten, eta koroekin lagundu ere. Baita Martzelen anaia ere. Horregatik lagun talde bat izateak malgutasun handia ematen digu. **- Nola izan zen zuen lehen kontzertua?**

P.: Guztira 5 abesti izan ziren. Eskilarapekon jo genuen, Ermua Harrera elkartearentzako, eta sentrazio ona izan ge-

nuen. Bertako giroa itzelezkoa zen, jendea motibatua...

Mi.: Oso urduri geunden hasi aurretik. Gabonetan izan zen eta Harrera taldetik dirua behar zela esan zidatenez, kontzertu bat eskaintzea erabaki genuen. Nahiz eta ordura arte entsegu gutxi eginda eduki, talde moduan aurkezteko aukera ezin hobea ikusi genuen. Ordu erdiko kontzertua izan zen eta, ohikoa den bezala, oztopo teknikoak izan genituen. Izan ere, leku aproposena izan zen gure lehenengo aldirako, hurbileko jendea bertan zela: lagun gehienak hantxe oso gogotsu eta, nola ez, bertan ere gure gurasoak.

- Zein zailtasun izan dituzue talde moduan?

P.: Gure *nemesia* entseguak dira eta ez dugu eztabaida gehiegirik.

Mi.: Gainera, COVID-19 garaia dela-eta, entsegu lokalak itxita izan ditugu. Norbaiten etxean geratzen ginen entseguak egiteko. Orain, pandemia garaia amaitzen ari den arren, azterketa garaia dugu eta ezinezkoa egin zaigu geratzea.

- Zein izango da Indabaken hurrengo pausua?

Mi.: Gure errepertorio propioa ateratzea, baina ez gara talde serio bat. Bakoitzak bere etxean burura etortzen zaizkion ideiak proposatzen ditu



eta pixkanaka, gauzak aurrera doaz. Horrez gain, gure abestiak guk geuk ekoizteko asmoa dugu.

P.: Ez zaigu besterik geratzen, azken finean ez dugu dirurik, kar, kar!

Mi.: Bai, zorte itzela dugu Josuk eta Alexek ekoizpen ikastaro bat egiten dutelako.

- Ze garrantzi du musikazuen bizitzan?

Josu: Niretzako oso garrantzitsua da. Egutero entzuten dut, edozein tokira noanean kaskoak jarrita daramatzat, musikarekin. Gainera egutero jotzen dut musika, eta esango nuke beharrezkoa den gauza bat dela. Txikitatik jo egin dut eta horrek sentipen asko sortzen dizkit.

P.: Musika dena da. Esnatzeko musika jartzen dut, eta egutero ondo hasteko balio dit.

A.: Nire bizitza da. Egun osoan musikan pentsatzen ari

naiz, eta ez zait inporta zein genero musikal den. Orain dela gutxi seriotasunez hartu dut, eta kontserbatorioan ikasten hasi naiz. Nire helburua ikasten jarraitzea eta musikari bilakatzeta da, musikaz bizitzea.

Mi.: Nire etxean betidanik egon dira instrumentuak. Nire amak pianoa eta gitarra jotzen zituen, eta txikitatik hurbil eduki dudana zerbait da. Bestalde, gu laurok musikara gehiago hurbildu ginen musika eskolan hasi ginelako, nahiz eta geroago utzi. Halaber, abeslari moduan egon nintzen urte askotan. Niri ere, aukera izango bazu, musikaz bizitzea gustatuko litzaidake.

- Gehitu nahi duzuen zeozer...

P.: Pandemia izan dela eta, kultura arloak kolpe handia jaso du. Ondorioz, kulturari protagonismo handiagoa ematera bultzatuko nuke jendea.

Eneko López

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria ANBOTO
Burdindegi
Orain KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu
943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa
Hitzorduak: 688 85 18 95

**BERBALAGUNEK AGUR
ESANGO DIO
IKASTURTEARI**

Berbalagun egitasmoa azken txanpan sartu da, eta ekainaren 27an burutuko du ikasturte honetako azken ekintza. Egun horretan euskara praktikatzeko paseoa egingo da, eta berau Patxi plazan hasiko da, 10:00etan. Parte hartzea doakoa da, baina alde zurretik eman beharko da izena 663 070 492 telefonora whatsapp bidalita, edo ermua_berba@aek.eus helbidera mezua bidalita.

**Eztanda Eguna burutuko da Ermuan
uztailaren 10ean**

Ermuko Gazte Asanbladak, NüShu Neska Gazte Feministek, Ikama Ikasle Taldeak eta Ernaik Eztanda Eguna antolatu dute uztailaren 10erako (larunbata). Talde horien arabera, gazteen arazok areagotu egin dira COVID-19aren eraginez, esparru hauetan hain zuzen ere: lan prekarietatea, etxebizitzaren auzia, hizkuntzaren afera eta matxismoa, besteak beste. Hau guztia plazaratzeko, egun osoko egitaraua prestatu dute, "Gazteok ez dugu COVID-19a ordainduko. Eztandak borrokan harrapa gaitzala" lemapean. Goizeko ekitaldiak 10:00etan hasiko dira, eta hiru tailer burutuko dituzte: 10:00etan Autodefentsa feminista, 11:00etan "Maskulinitate disidenteak", eta 12:30ean "Etxebizitzaren auziari begirada alternatiboa". Eguerdian ekintzak eten, eta 14:30ean bazkari autogestionatua egingo da. Jarraian, beste bi tailerretan parte hartzeko aukera egongo da: 16:00etan "Gazteak eta lana" eta 17:00etan "IZPIA, Ikasleak zer?". 18:30ean ekitaldi bat burutuko da, eta 19:00etan kontzertuak egingo dira. Ekitaldi guztiak plazan egingo dira.

**Birus guztiak ez dira txarrak...
kutsatu zaitez!**

Izen-abizenak Helbidea

Telefonoa Posta elektronikoa..... NAN

Jaiotze-data K/K zenbakia



Euskal Birusa Euskara Elkarteak
Erdikokale zeharbidea 2, 1.

943 17 93 50 / 688 63 28 74
euskalbirusa@gmail.com

NORK	EKARPENA URTEAN
18 urtetik beherakoak	10 €
Ikasle / jubilatutakoak / langabetuak	20 €
Langileak	35 €

Ermuko hainbat tabernek parte hartu dute Bizkaiko Pintxo Txapelketan



14 herri ezberdinetako ostalariek eman dute aurten izena Bizkaiko Pintxo Txapelketan, eta guztira 37 mokadu ezberdin aurkeztu dira. Haien artean Ermuan sortutako bost: "Antojito" (Amatxi), "Air Burr" (Giroa), "Txerritxo" (Mendiola), "Metamorfosis" (Mojito Club Kiska) eta "Almadrabako altxorra" (Sagarra). Txapelketa honen lehen fasea maiatzaren 28a eta ekainaren 6a bitartean

burutu zen, eta data horietan epaimahaiak eta herritarrek txapelketako pintxoak dastatzeko aukera izan zuten. Bigarren fasea ekainaren 7an eta 8an burutu zen, El Silo Bilbao aretoan. Lehen egunean, finalerdiak burutu ziren eta epaimahaiak 10 finalista aukeratu zituen, tartean Kiskako Andoni eta Julen Pérezen "Metamorfosis" eta Mendiolako Jose Manuel Rodríguezen "Txerritxo". Ekainaren 8ko finala *showcocking* formatoan egin zen, hau da, sukaldariak zuzenean kozinatu behar izan zuten mokadua, eta irabazlea Bilboko Sorginzulo tabernako Iñaki Lazcano izan zen, "Fish-Kaia" pintxoari esker. Horrez gain, "Metamorfosis" pintxoak sari popularra jaso zuen, txapelketaren aplikazioan boto gehien lortu zituelako.

Erdikokaletik plazara bitartekoa zabalik



Hilabete honetan amaitu dira Erdikokalea Orbe Kardinalaren plazarekin lotzen duen pasabidearen lanak, frontisaren horma alboan sarbide bat zabaldu ostean. Estankoa izandako eraikina eta Aldapakua baserriaren ondoko eremua urbanizatzeko plaza txiki bat sortu du. Lanak burutzeko asmoz kendutako Felix Izagirre palistarren plaka oroigarria laster ipiniko da jatorrizko lekuan. Orain plazatxo horri izena ipintzea falta zaio. Kale-izendegia emakumez urri samar dagoela erreparatuta, herritar esanguratsuren baten izena zergatik ez bertorako?



ARTARRAI MENDI TALDEAK IRTEERA BAT ANTOLATU DU UZTAILAREN 3RAKO ETA 4RAKO



Artarrai Mendi Taldeak irteera bat antolatu du Huescara, uztailako lehen astebururako: Canfranc - Canal Roya - Formigal ibilbidea egiteko, eta Peña Foratata igotzeko (2.321 metro) hain zuzen ere. Antolatzaileen arabera, zailtasun ertaineko irteera izango da, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da federatuta egotea. Autobusak eta pentsio erdiak 65 euroko prezioa izango du, eta doako jarduera bat eskainiko da prezio honen barruan. Izena eman nahi dutenak Artarrairekin jarri beharko dira harremanetan (638 050 634 telefonora deituta edo artarrai@euskalnet.net helbidera mezu elektronikoa idatzita), eta uztailaren 3an Agirre Kiroiak dendaren ondoan hartu beharko dute autobusa 6:00etan.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM

ENTPRESA INSTALATZAILA BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitsi-denda Tailor propioa Etoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

mari asun
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

LAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

AIRE LIBREKO LEHIAKETAKO MARGOLANEN ERAKUSKETA



Igande eguzkitsuz ospatu zen Mugartea taldeak antolatutako Aire Libreko Pintura Lehiaketa eta 75 artistek hartu zuten parte, gehiengoa Euskal Herriko bazter anitzetatik etorritakoak, baina baita Cantabria eta Asturias aldekoak ere. Sarietan, inor aipatzekotan artista lokalen kategorian garaile izandako Cristina Taboada, Jorge Ojeda eta Lorenzo Guinaldo. Ermuko hirigunea artista partaide guztien begirada koloretsuaren bitartez geratu zen islatuta eta artelan guztiak ikusgai egongo dira Lobianon, hilaren 25era arte, 18:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegian.

Herriko hainbat umek eta gaztek ludotekan eta udalekuetan eman dute izena

Eskola bukatu eta gero, ume eta gazte ugarik herriko ludoteka zerbitzuan eta udalekuetan eman dute izena. Bi eta sei urte bitarteko umeei zuzendutako ludotekan 43 umek eman dute izena. Antxixiketan Begirale Taldeak eskainiko du zerbitzu hau Anaitasuna Ikastolan, 9:00etatik 13:30ak arte (15:00ak arte jantokira geratzen diren umeak), eta autobus zerbitzua egongo da.



Lehen Hezkuntzako umeei dagokionez, 420 eskaera baino gehiago jaso ditu Udalak "Oporretan jolas" udalekuetan parte hartzeko. 225 plaza eskaini behar zituen Udalak, baina COVID-19ari aurre egiteko neurriak leundu direnez, eskaera guztiak onartuko dituzte, Udalaren webgunean irakurri daitekeenez. "Oporretan jolas" ekainaren 28an hasi eta uztailaren 16an bukatuko da, eta izena eman duten umek 3 jarduera motetan parte hartzeko aukera izango dute: zirko eskolan, aisialdiko jardueretan eta *steam* tailerretan. Izan ere, jarduera hauek txandaka eskainiko zaizkie adin tarte bakoitzari, eta bakar batean, bitan edo guztietan parte hartzeko aukera egongo da. Zirko eskolaren helburua izango da kontzentrazioa eta iraunkortasuna sustatzea, hala nola gorputz-adierazpena, sormena eta norberarengan eta taldearengan konfiantza lantzea. Aisialdi jardueren helburua aldiz, jolasaren bidez sozializazioa lantzea da. Azkenik, *steam* tailerrek umeak euren ikaskuntzaren protagonista bihurtu nahi dituzte, zientziarekiko esperientzia eskola-testuingurutik atera, eta emakumea zientzian aintzatetsi.



Azkenik, Antxixiketanek "Uda Nahasten" udalekuak eskaintzen dizkie 12 eta 16 urte bitarteko gazteei (DBHko 1., 2. 3. eta 4. mailakoei), eta izena emateko epea zabalik dago oraindik. Uztailaren 5etik 16ra bitartean burutuko dira udalekuok, eta izena ematen dutenek kayak, *paddel surf*, tailerrak eta espeleologia praktikatzeko aukera izango dute besteak beste.

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaeta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Esperanza Loitxate, parterria

Umiei munduratzeko laguntziana ezinbesteko ofizio edo zeregiña izan da beti eta andren kargu egon da gehixenetan. Oinguan, eginkizun horretan jardundako Esperanza Loitxate mallabitarraren gaiñekuak osatzen, bere etxe-etxeak lagundu doskue.

Mallabixan, kalekalian, Kalbarixoko hiru kurutzien parian zeuan Moitte basarrixan jaixo zan, Muntegieta idatzizkuetara jo ezker; 1881eko abenduan 17 haretan, hotz egingo zeban haren baten. Julian Loitxate Acha eta Clara Astarloa Narbaiza berriztarrak izandako 5 seme-alabetatik laugarrena izatia egokitxu jakon. Umezurtz geratu ziran: Esperanza 3 urteko zala hil jakuen aitxa eta justu bi urtera ama. Anai-arrebok senide desbardinengana eruan zitxuezen, Eibarrera batzuk eta Zaldibarrera beste batzuk, tartian Esperanza bera.

Gazte-gazterik urten zeban bizimodua etaratzera eta Ermuan edadeko gizon bat zaintzeari ekingo zotsan. Haren seme Anastasio

Albizukin ezkondu zan 1900eko irailan, 18 urteko zala; hiru seme-alaba euki zitxuezen, Luis, Elisa eta Martin, txikitxan zendutakua. Txistularixa eta Bandako zuzendarixa izango zan Luis; entzute haundiko bordatzaillia Elisa.

Luisen alabak, Esther eta Mari Carmen Albizuk ama-amama jantzitxa gogoratzen dabe: lurrerainoko soiñeko luze baltzak, tokillia lepo gañetik eta moñuan altxauta ulia. Eta beti josten, ze “kanporako eitxen zonan. Sukaldeko baztartxo baten eta gabeko orduetan be, prakak eta alkondarak josten ekitzen jotsanan”.

Ez dabe gogoratzen partera zeregiñetan ikusi zebnik, eurak koskondu zirane-rako lagata zeuan itxuria; baina hori bai, ondo goguan



Esperanzaren seme Luis, honen andra Vicenta Yarza eta hiru loibekin: Esther, Mari Carmen eta Ernesto. Mallabiko bidian, 1953an.

dake ha gailateria, partu baten lagundu ostian erregalu jasotako gaileta-kajia. Entzunda dake baitxa hau eta bestia jaixo ziala berakin, 1930 ingurukuak danak. Mari Carmen bera, amamak lagunduta munduratu zan 1937an.

“Izakera gogorrekua zonan gure amama, dana ondo ein bihar harekin! Pertsona ona baiña!”, diño Estherrek. Ofiziuia ikusiaz ikasiko zebala erizten dotse bixak, Estherren berbetan “ospitxalik be ez zeuanan orduan-eta!”. Mari Carmenek baserrixan bizi zanian ikusiko zebala uste dau eta gero bera “moldosia izan, esku onekua, eta atrebida...!”.

Kantuan gero “zoragarri eitxen zonan! Guk jakanaun

oidua amamana don!”, diñosku Mari Carmenek. “Ama maite Maria” eliz-kantua zelako gustuakin kantatzen zeban ahizta bixak dakarre akordura.

Elisak bordatzen erakusten zeban eta haren ezkatzian emoten zeban eguna Esperanzak, bere jostiok eskuetan. Illuntxian Luisen etxera juaten zan; Mari Carmen prest beti amamakin lo eitxeko: “Ondo? berak eta baietz nik. Atzetik oratzen nindunan eta lo bixok, epel-epeletan!”.

Ermuko Izelaietan hil zan, 1954ko apirilaren 12an, “udabarrizan” Estherren gomutaz.

Estibalitz González

“Gure amamak ofiziuia ikusiz ikasi zonan”



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336

Modesto Saenz de Zaitegi: Ermuko txirrindularitza eta Ikastolaren hastapenen ikur

Arabako Urrunaga herrian jaioa duela 77 urte. 6 neba arreben artean laugarrena. 70. hamarkadan Ermura etorri eta Anaitasuna Ikastolaren eta Ermuko Txirrindulari Elkartearen sorreran ibilia. 3 seme-alaben aita. Oraindik ere txirrindulari gisa segitzen du.

- Arabarra zara jaiotzez...

Bai, hala da. Urrunaga herrian jaio nintzen, baina han urtegia egin behar zutenenez, Duranara mugitu ginen 7 urte nituenean.

- Ermura nola etorri zinen?

Gaztetan oraingo Mercedesen egiten nuen lan, eta lagun bati Ermuko Unamuno enpresara zuzendari bezala etortzeko aukera eskaini zioten. Berarekin etorriko ote nintzen galdetu zidan. 1970. urtea zen.

- Nolakoa zen orduko Ermua?

Erabat kaotikoa! Dena zegoen egiteke. Parkerik ere ez, etxebizitzak sortu eta sortu...

- Aurreneko pausoak ikastolaren sorreran eman zenituen...

Argi geneukan bai emazteak eta bai nik, gure seme alabak euskaraz hezi nahi genituela eta horretarako ikastola behar zen. Aurreneko belaunaldietako bat izango da gure seme zaharrena. Hirurak ibili ziren ikastolan. Garai zailak ziren: ez zegoen baimenik, baliabideak ere urriak, baina gurasoon eta irakasleen arteko harremanak oso indartsuak ziren. Ondo gogoa daukat diru premia larrian geundela, eta Iñaki Elgea zenak, pilotari gisa agur omenaldia egin ziotenean Astelehena frontoian, bildutako diru guztia Ikastolari eman ziola.

- Txirrindulari munduan ere hasi zinen...



Duranan Peña Ziklistako lehendakari ere izana nintzen Ermura etorri baino lehen. 50 urte izango dira hura sortu genuela. Ermuan garai haietan inor ez zen txirrindularekin ibiltzen. Tote Olañeta ezagutu eta Eibarko taldearekin hasi ginen irteeretan parte hartzen.

- Ermuan noiz sortu zenuen Txirrindulari Elkartea?

1979-80 inguruan izango zen. Lasuen ere tartean zen, eta umeentzako txirrindulari eskola abiatu genuen. Ziklo-kroseko lasterketak eta errepidekoak, biak antolatzen genituen makina bat urtez.

- Ermuko zikloturisten taldea ere sortu zenuten...

Ermuan betidanik izan da txirrindularitzako afizioa eta

zikloturista taldea ere 80. hamarkadan abiatu genuen. Irteera luzeak eta laburrak, denetik antolatu izan diturteetan. Taldean jarraitzen dudan arren, orain dela 21 urte utzi nituen ardurak eta Iñaki Arano da azken urteotan arduraduna.

- Igo dituzun porturik ezagunenak?

Tourmalet, Peiresourde, Aubisque... Quebrantahuesos-a egin ez izanaren arantzaxoa daukat.

- Besterik?

Arari Elkartearen ere makina bat urte daramatzat bazkide legez eta han ere, une oso gogoangarriak pasa izan ditut. Ermuan oso gustura bizi naiz!

Asier Ibaibarriaga



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Aimar Galdos, txirrindularia:

“Hainbatetan jausi eta gero, konfiantza hartzen noa berriro ere”

Familiatik datorkio Aimar Galdos ermuarrari pedalei eragiteko afizioa. Duela 7 urte hasi zen txapelketetan parte hartzen, Gaurisa Rent a Car-La Tostadora taldeko kidea da, eta duela gutxi lortu du jubentzetako lehen garaipena.

- Nola doa denboraldia?

Hainbat lasterketa bertan behera geratu dira, baina 25 bat burutu ditugu. Eibarren egin zen lehenengo lasterketa, eta bigarren heldu nintzen helmugara; Orduñan gero, bigarren ere; baita Igoarren ere. Azkenean, ekainaren 6an garaipena lortu nuen Mendatan.

- Izango zenuen irabazteko gogoa, ezta?

Bai, irabaztea beste paus bat ematea da.

- Zer nolako lasterketa izan zen?

76 kilometroko ibilbidea, etengabe gora eta behera: Mendatetik Gernikara jaitsi, Ajangizen bi buelta, Urrutxua, Muniketa eta Bizkaiko Begiratokia igo, Munitibarrera jaitsi eta berriro Mendatara igo. Kalanbreak izan nituen!

- Egin duzun lasterketarik luzeena izan da?

Ez, Durangoko lasterketa batean 100 kilometro inguru egin nituen behin. Jausi nintzen arren, 7. geratu nintzen.

- Hobeto moldatzen zara jaisten edo igotzen?

Igotzen. Hiru lasterketan jausi nintzen aldapan behera

nindoanean, eta beldur apur bat hartu nien jaitsierei. Orain konfiantza hartzen noa berriro.

- Ohikoa da igoeretan hobeto moldatzea?

Egia esan, txirrindulari mota ezberdinak daude: batzuk erlojupekoetan nabarmentzen dira, gihartsuak esprintetan ibiltzen dira ondoen, argalak igoeretan...

- Sailkapen horretan non kokatuko zenuke zure burua?

Momentuz ez dut ikusten nire burua taldetxo horietan sartzeko moduan baina, kokatu beharko banu, igotzailen taldean sartuko nuke.

- Egin beharreko ibilbidea aurretik ezagutzea mese-degarria da?

Bai, bidea ezagutzeak beste puntutxo bat ematen dizu, badakizulako zenbat sufritu behar duzun, non egin dezakezun aurrera... Euskal Herriko errepide asko ezagutzen ditut, baina Nafarroakoak orokorrean ez. Are gutxiago hemendik kanpokoak.

- Izan ere, hainbat lasterketan parte hartu duzu



Euskal Herritik kanpo Euskadiko selekzioarekin...

Bai, eta txirrindularien mailari dagokionez, alde handia dago. Aurten oraindik ez didate deitu, hemendik aurrerako lasterketak eta emaitzak hartzen dira kontuan selekzioko kideak aukeratzeko.

- Txikitatik zabilta bizikletaren munduan. Zure osaba den Aitor Galdosek zaletasun horrekin zerikusirik izan du?

Bai, eta gaur egun bera da nire entrenatzailea.

- Aholkurik ematen dizu?

Bai: gogotsu entrenatzeko esaten dit, eta entrenamendu eta lasterketa guztietan gozatzeko.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Bospasei egun astean, eta ordubeteko edo askoz jota 4 orduko saioak egiten ditut.

Ahal badut beste txirrindulari batekin edo taldean joaten saiatzen naiz.

- Ondotik igarotzen diren kotxeek errespetatzen zaituztete?

Batzuetan 10 zentimetrora igarotzen dira, eta momentu horietan buruari buelta pilo bat ematen dizkiozu. Zentzu horretan kirol arrakatsua da.

- Noren jarraitzailea zara?

Mikel Landa gustatzen zait, hemengoa delako eta ausarta delako. Pertsona arrunta da, oso jatorra. Horrez gain, aipatuko nituzke Alberto Contador eta Chris Froome.

- Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Nire helburua da profesiona izatea, eta maila horretan lasterketak irabaztea.

Dorleta Vidal



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Zer dela-eta medikatzen dugu dena?

“Diazepam, Valium, Lexatin... Noiz normalizatu dugu botikak hartuta bizi behar dugula?” galdetu zuen Iñigo Errejón politikariak Diputatuen Kongresuan. 2002an Espainia zen munduko hirugarren herrialdea psikofarmakoen preskripzio kopuruan ume eta nerabeengan. Ikerketa honetan kontuan hartutako sendagaiak izan ziren antidepressiboak, estimulatzailak, lasaigarriak eta antipsikotikoak.

2000. eta 2013. urteen bitartean, depresioaren kontrako medikamentuen kontsumoa igo egin zen 26,5 dositik 79,5 dosira mila biztanleko, Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziaren arabera. Beste psikofarmako batzuen kontsumoa, ansiolitikoena kasurako, 38,1 dositik 56,3 dosira igo zen 2000. eta 2015. urteen artean, OC-

DEko Estatistika Bulegoaren datuen arabera. Hipnotikoena eta lasaigarriena 17,9 dositik 30,9 dosira.

Hori da joera. Gero eta gehiago medikatzen gara, eta geure buruari galdetu beharko genioke zergatik gertatzen den hau. Bizi dugun egoera kontuan hartuta, datuak izugarri igo dira, eta psikofarmakoen erabilera nabarmen hazi da: %20 hain zuzen ere, eta aurretik kontsumitzen zutenen herenak dosia handitu du.

Baina, zer bide ditugu estres egoerei aurre egiteko? Gizadiaren eboluzioan, inguru naturalean gertatzen ziren aldaketei egokitzeko ahalmena zuten espezie bizirik irauten zuten, eta espezie bezala eboluzionatzen zuten, Darwinek azaldu zuen bezala. Gure gizartearen exigentziek egokitzera behartzen gaituzte, eta gaur egun psiko-



Juan Carlos Martín

farmakoak kontsumitzea da egokitzeko gehiengoak erabiltzen duen metodoa. Ume bat ohi baino aktiboagoa bada, medikatu egiten da. Pertsona batek ezin badu lorik egin antsietate arazoak medio, medikatu egiten da. Pertsona batek depresioaren sintomaren bat badu, berehala medikatu egiten da. Dementzia duen pertsona nagusi batek tratatu ona eta dedikazioa behar badu, medikatu egiten da. Dena medikatzen da, eta okerrenea da jada normalizatu egin dugula.

Eta medikatu beharrean saiatuko bagina pertsonak erremintaz hornitzen, egoera ezezagunak maila emozionalean egoki kudeatu ditzaten?

“ Egungo egoeran, psikofarmakoen erabilera %20 igo da ”

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Zuri egokitzen den odontologia

La odontología que se adapta a ti

Dr. OLATZ GARCÍA ARREGUI (C.A. nº 1264)

· P.A.D.I
· IMQ
· SANITAS
· DENTYRED
· AZKARAN
· OCASO

943 17 04 04

info@clinciasanpelayo.com

San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

FRAN ALONSO

- Nola gogoratzen duzu gaztaroa?

Oso ondo, beti egin dut nahi izan dudana.

- Eta gaztarotik gogoratzen duzun zerbait?

Olagarro arrantza. Aitak erakutsi zidan txikia nintzenean, eta ordutik horretan jarraitzen dut.

- Ez da oso ohikoa olagarro arrantzan ibiltzea, ezta?

Jendea harritu egiten da nola egiten dudana azaltzen diedanean, oilar hanka bat erabiltzen dut-eta. Trapu zuri batekin ere egin daiteke, baina nik nahiago dut oilar hanka. Askotan lagunak erakutsi diet nola ibili olagarroen atzetik eta gero beraiek ere gustua hartu diote. Geroz eta jende gehiago hasi da olagarro arrantzan, merkea baita, baina arazoa da batzuk olagarro kumeak hartzen dituztela, eta hori kaltegarria da bai espeziearentzat eta baita ingurumenarentzat.

- Beste zerbait ere arrantzatzen duzu?

Noizean behin bai, baina olagarro bila joaten jarraitzen dut. Heldu da momentua ordea, non olagarroa jatea ez zaidan interesatzen. Arrantzatu, garbitu eta prestatu egin dut, baina mahaian daudenentzako uzten dut.



Ama Santaderrekoa du, aita Leonekoa. Arreba nagusi bat dauka, Santanderren jaioa, baina Fran Ermuan jaio zen. Alaba bat du.

- Beste biziorik?

Lagunekin geratzea eta heavy metal kontzertuak.

- Kontzertu askotara joan zara?

Bai. Gaur egun festibale-tako talde guztiak ikusita ditut, baina beste herrietako lagunekin elkartzeko aitzakia onak dira.

- Faltan botatzen duzu kontzertu edo festibalik?

Bai, Rock Fest-a Bartzelonan. Jaialdi hark irauten duen hiru egunak nire opor txikiak dira. Herri osoan heavy metal grina antzeman daiteke.

- Kanpora ere joan ohi zara kontzertuak ikusten?

Ez. Estatu mailan mugitzen naiz kontzertuetarako, baina ez naiz hortik irteten.

- Eta ba al dago kanpoko festibalen bat ona ekartzeko gustatuko litzaizukeena?

Bai, Alemanian burutzen den Wacken festibala hurbiltzea gustatuko litzaizuke, baina hain handia ez dagoela espazio nahikorik sartu ahal izateko.

- Zertan egiten duzu lan?

Pintorea eta dekoratzailea naiz. Gazte hasi nintzen lanean eta gazte joan nintzen etxetik. Hasieran dekoratzaile bezala egiten nuen lan, eta gero margolari ere hasi nintzen. Orain biak egiten ditut batera.

- Ikasteko aukerarik izan zenuen?

Ez nuen ikasi nahi izan.

-Atzera begiratu eta damutzen zara hartutako erabakiren batez?

Ez. Egindakoa eginda dago! Ez dut uste atzera begira bizi behar denik, egindakoa ezin daitekeela aldatu-eta, eta horrek tristurak ekar ditzake. Hobe atzean geratu den horri kasu askorik ez egitea.

- Damuak ez, baina ba al duzu, atzera begira, egun zorionsurik?

Nire alaba jaio zen eguna dut beti garrantzitsutzat.

- Alabak gustuko du zure musika estiloa?

Ez, ez. Berak diskotekeoa nahiago du.

- Ba al dago gurasoek erakutsitako zerbait alabari transmititu nahiko zeniokeena?

Bizitza gogorra dela, eta bakoitzak landu ezean eta borrokatu ezean, ez dela ezer lortzen.

Nahia Ruiz

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

Zeharkalea 8
Tel: 943 17 65 61
ERMUA

**MALLABIA
1983**

Argazki hau 1983ko urriaren 23an aterata dago. Urte horretan lehen aldiz ospatu zen ardi txakur txapelketa Mallabiko urriko jaietan. Bertan agertzen dira: Juan Angel Mugarza, Angel Gallastegi, Jon Urkiola, Martin Gerenabarrena, Martin Ibaibarriaga, Juan Besoitaguena, Patxi Urkiola eta Antonio Urkidi. Argazkian zutik agertzen direnak hartu zuten parte txapelketan, eta Patxi eta Antonio laguntzaileak izan ziren.

**ERMUA
1950**

San Pelaixoko erromeria egun beroa atera zen uztailaren 2 hura eta edari eta freskagarriak gurdiz eraman ziren bertaraino, ohitura zen bezala. Argazkian dauden gizonezkoak dira, tente eta ezkerretik eskumara: Juanito Gorritxategi, Antonio Zubizarreta, Niceto Gorritxategi, Ignacio Urreta, Victor Izagirre eta Niceto Onandia; jesarrita Juanito Izarra eta Teodoro Zuazua abadea. Gurdiaren ondoan, andrazkoak: Bienve Amillategi, Visi Ibaibarriaga eta Margarita Arrizabalaga. Argazkiko pertsona helduak identifikatu dira bakarrik.



* 299. zenbakian argitaratutako argazki zaharrear, izen bat falta zen: Rafa Luis Petiterena, alegia (makurtuta, lehen ezkerretik hasita).

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

LAN BILA

Ermuko neska gazte euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. 14:30etik aurrera. Oporretan egun osoz.
 © 648 62 52 09

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
 © 681 31 09 89.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
 © 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
 © 632 41 53 74.



Ekainaren 16an
 Zorionak Ane zure 5. urtebetetzeari! Muxu handi bat etxekoan partez.



Uztailaren 13an
 Zorionak etxeko ertainari! 3 urte beteko dituzu eta beti zure irribarre polit honekin jarraitu! Patxi handi bat denon partez, Iker!



Ekainaren 14an
 Zorionak Iker, zure 10. urtebetetzeari! Oso egun politxa pasatu familia eta lagunekin! Patxo haundi bat! Maite zaitugu.



Ekainaren 15ean
 Zorionak Aiala, 10 urte egin dituzu eta hamar-kada berri batean sartu zara. Disfrutatu eguna eta besarkada handi bat familia osoaren partez.



Ekainaren 20an
 Zorionak aitite Jesús zure egun berezian! Oso egun polita opa dizugu zure 80 urtebetetzeari! Urte askotarako! Maite zaitugu!

Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
 drogeten@gmail.com

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Uztailaren 14a.**

Enter Informática

SALMENTAK
 IRAKASKUNTZA
 ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
 943 17 90 37
 enter@informaticaenter.com

arral arral97.com

Luis Cañas Amaren Cair Ehun Txakoli Astobiza Pazo Señorans Cava Oriol Rossell

Grupo Yllera Casar de Burbia Bodegas Valdemar García de Olano Manzanos Wines Pernord Ricard Wines Faustino García Martínez.

T.943176075

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Hamburguesería **TITANIC**

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
 943 030 512 / niklinika@gmail.com

Hilaren 2an

Zirku flamenkoa:
"Sin Ojana",
Chicharrón
taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 3an

Umeentzako ikuskizuna:
"Matraka ma non
troppo", Trakamatraka
taldearen eskutik.
12:30ean. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 3an

Euskal dantzak.
Txindurri dantza eta
txistu taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 4an

Tango kontzertua
Malevaje taldearen
eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 9an

Clown ikuskizuna:
"Rojo", Mireia
Miracleren eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 10ean

Gazte Eguna:
hainbat ekitaldi.
10:00etatik aurrera.
Orbe kardinalaren
plazan.

Hilaren 10ean

Antzerkia:
"Mi madre también
quiso ser pez",
Paula Prolen eskutik.
Sarrera 8 €
19:00etan. Lobiano
Kulturgunean.

Hilaren 11n

Rock kontzertua
Kokein taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 16an

Kale antzerkia:
"Tonbola", Hika
taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 17an

Umeentzako ikuskizuna:
"Ingurumena zaindu".
Potxin eta Patxin
taldearen eskutik.
12:30ean. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 17an

Folk kontzertua
Amak taldearen eskutik.
19:00etan Orbe
kardinalaren plazan

Hilaren 18an

Bolero eta rantsera
kontzertua Pan con Chile
taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 23an

Zirkua: "Kasumay",
Circo Los taldearen
eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 24an

Umeentzako ikuskizuna:
"Chef nature", Markeliñe
taldearen eskutik.
12:30ean. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 24an

Pop eta kontzertua:
Bichorraro
bakarlariaren eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 25ean

Magia ikuskizuna:
"Visual Magic Show",
Oliver magoa eta
Liubaren eskutik.
12:30ean. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 25ean

Funk eta soul kontzertua:
Josh Hoyer eta
Soul Colossal
taldearen eskutik.
19:00etan. Orbe
kardinalaren plazan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

PRO
arraindegia



ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com




MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotékrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS


- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Seguritasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 86 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK
**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN**
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ARKITEKTURA
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**
BERRITZE LANAK ZURE ERAKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
Probaleku 4 Bis, behea - 48260 Ermua - Bizkaia

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

ESKERRIK ASKO



GUZTIOI GUGAN KONFIANTZA IZATEN JARRAITZEAGATIK

Jarrai iezaguzu hemen



@maneko_mane



Mañeko Mañe

Emaiguzu zure iritzia



Reseñas Mañeko